

# Kanpezu

Amamengandik bilobengana



Arabako Herriak

# KAN PE ZU





*Urbisuko ikuztoki  
Argazkia: Aitor Arenaza*



## Kanpezu

*Bide, bidatz, bide-zidor, inda... iragobide eta iragolur da hau. Arabako Mendialdean zehar, Nafarroatik edo Gaztelerritik hainbat ibiltari, abeltzain, salerosle ibili izan da iparralderantz.*

*“Gaizkileen muga” Erdi Aroan, bide-lapur eta ohoinen babesleku izan zen, maiz.*

*Laborea hainbat urtez sorootan haizearekin kulunkan ibili izan da, eta zitua biltzeko herrikoek sega eta igitaia eta trailua erabili izan dute, eultzia bilurrez lotuz, eta zura behar zituzten tresnak edo lanabesak egiteko.*

*Luginak, nekazariak eta ehiztariak ziren, Vasco-navarro trenbidearen aldamenetan.*

*Antoñana bere harresiekin, Bujandan San Faustoren aztarrenak, Urbisu eta bere ikuztokia, Oteoko errota edo eihera eta Kanpezuko Done Gurutze, hauexek dira herriz eta jendez mosaiko hau osatzen dutenak, betikoa beti aldatzen baina ez galtzen doan udalerria.*





*Bene eta Angel, Sibilian*

Amamarengandik  
bilobarengana

Lehen eta Orain

Bene  
Chasco-  
rekin

Kanpezu











## Urriteak

“

*Orduan gutirekin  
asko genuen”*

Benedicta Chasco, Bene, ezagutzen dutenentzat, Urbisun jaio zen, 1936ko azaroaren 12an.

Bederatzi anai-arrebetan lehena, eta honetatik eskolara bagerik laster etxean lagundu beharra, bai etxeko tikienak zaintzean bai soro-lanetan.

Bederatzietarik sei bizi ziren, guduaz geroko urrite eta apoita gorriko urte haietan ohikoa.





“

*Urbisuko soroak  
lehen laboreak  
estaltzen zituen”*

Oloa, garia, garagarra ereiten ziren, eta gero, trapa gainean umeak, bihia galtzuzitik bereiztearren, eultzia egiten zen.

Etxeko aberekiak eta ehizikiak jateko asko, aurrera ateratzeko nahikottoa, inor ezerezean utzi bage. “Elkarren antzera bizi ginen”.

◀ Bene Chasco, biloba Sara Gamiz-ekin

◀◀ Sendiaren etxeko balkoia



## Gizon- emakume ikazkinak

Hasieran ikaztobiak ziren, botoak alegia. Arabako Mendialdea, mendearen erdialde haretan, txondorrez josia zegoen. Gazte eta helduak, nolabait, lan gogor haretan aritzen ziren: boto-larrai-na egin, txondorra eraiki, gau eta egun zaindu, eta gero ikatza idoki behar zen.

Hurrengo lana, saltzea, eta honetan emakumezkoak gehien; Errioxa aldera eramaiten zuten, Herrera mendatean gaindi, menditik oinez.

Taldean joan ohi ziren, usu kanta-kantari, eta gautu ondorean zamariaren isatsari oratu eta etxerantz, aberea gidari.


*Edorta Lamo sukaldaria, Arrea-koa, ▶  
antzinako langintza antzestuz*

“

*Ikatza, garai  
haietako  
erregaia”*







“

*Emaztegai  
guztiak beltzez  
ezkondu ohi ziren  
eta niri hori ez  
zitzaidan  
atsegin”*

*Urbisun Angel eta Benedictaren ezkontza, 1957*





## Apaindura gutiko ezteiak

Gazte zela, Bene' Nafarroako Larraonara bidali zuten, osaba-izeben etxera, josten ikasi bitartean apopilo; "etxean soineko guztiak nik egiten nizkien". Ezkondu zenean ziren guztiei jantzi beharrekoak harek egin zizkien, berea izan ezik, soineko zuria neurritz egin baitzioten.

Angel Gamizekin jalgiten hasi zen, Urbisukoa ere bai, hamazortzi urte bete berri. Egun batean, iturritik itzultzean, harek geldi eragin zion eta "hala hasi ginen, ur pixka batekin; hala izan zen". Xalo-xalo, baina bizitza osorako. Hantxe hasi ziren, etxea erosirik, eta bertan Gamiz anaien agindupean jarduten zuten hogeitaz langileei bizitokia eskainiz, basamutilak ziren ikatza eta egurra egiten aritzen zirenak.

Beneren esku etxeko aurrerapena, eta nahiko lan hainbat gizaseme gobernatzeko, zarata eta nekea ez ziren peitu izaiten, basorean itzulita, "ahizpatzako batek zerrategikoei jaten eman eta bestearekin nik basokoei".



## Maderas Gámiz

Gamiztarrak bost anaia ziren, Angel bat, eta hasieran baso-lanetan, ikatzaren egitean eta egurraren saltzean jarduten zuten, baina geroago, Kanpezun lehenbiziko zerrategia ibilarazi zuten, 1957. urtea zen. Ondoan, bost bizitegiko etxe bat eraiki zuten, senideen bizi-etxea urteetan. “Zuraren mundua gogorra da, joan-etorrian beti, eta gu emakumeok beti bakarrik”.

Zur-mundu hori Sara Gamizentzat ez da ezer izan inoiz, haren biloba izan arren, zuraren usaina hurretik jaso badu ere, ttiki-ttikitatik.

Gaur egun, landetxe baten jabea da, Inta Landetxea hain zuzen. Gazte askok hemen geratzea erabaki du; “nire lagun-taldea hemen bizi da”

- ▲ *Etxe aurrean, enbor handi baten gainean. Sendiaren argazki-bilduma*
- ▶ *Benedicta garabian. Sendiaren argazki-bilduma*

Gamiz taldea nazioartean ere gora iritsi da, adibidez, Parisko Abokatuen Elkargoaren egoitza berriaren eraikuntzan esku hartu du. Haren harizkizko zutabe laminaduna AstraZenecan dago, Cambridge-n, bai eta Gasteizko Andere Mariaren Katedralean ere.

2012an eraikin enblematiko horretan, eskilara polit-polita egin zuten, harizkiz, laminadun zurez hain zuzen, dorrea ikusgai egon zedin, 'Lanengatik zabalik' delako programan ikusketa gidatuak egitearren, eta, bide batez, eskilaran goiti kanpan-dorrera igo daiteke eta ikuspegi ezinago ederraz goza.

“

*Sendia beti  
zur-lanean”*







*Ehiza irudi bat*

## Ehiza

“Aste guztian bakarrik, gizonak ehizata-  
ra eta emakumeak beste behin bakarrik”

Kanpezun gehienak ehiztariak, eta antzi-  
nadanik datorren ekandua da. “Deneta-  
rik, orkatz, basurde, oilagor... datorren  
guztia. Urte osorako dadukagu, ez dugu  
haragirik erosten, abantzu, izoztu egiten  
dugu”.

Sararen mutila ere ehiztari da, “halako  
txorirean bat ekarten duenean, eramaiok  
heure amari, esaten diot, edo, bestela, nire  
amamari eramango zioat”. Oilagorrak  
lumatzen onena, eta sukaldatzen ere bai,  
oraindik, Bene da, edozein txori esku trebez  
pipiltzen daki eta.



“

*Orain lehen  
baino gehiagotan  
jalgiten gara”*

## Herri eginkorra

Benek gogoan du oraindik Feliciano Ibarrendoren eta bere anaien okindegiko alabetako bat bere zaldiarekin, otarreak ogiz beterik, herriz herri saltzen joaiten zenean.

Benek ez du herrian egiten den zein-nahi ekitaldi huts egiten. Yoga ez bada soinketa egiten du, koroan kantatzen du, irakurketa klubean ere esku hartzen, eta badago emakumezkoen ahalduntze-talde bat oso begi onez dakusana, oso eskertzekoa baita.

Herri honetan zerbitzu ugari dago, eta Inститutu bat dagoenaz gero gazteak hemen bizitzen geratzen dira.

▲ *Senitartea erromerian.  
Sendiaren bilduma*



1 Antoñana, Erdi Aroko iraganbideak

4 Arrea! Jatetxea

2 Ibernalo eta bere terraza

5 Hirigune zaharra

3 Ehiza





Kanpezu

# EZIN BESTE KOAK

- 6 Ignaziotar bidea
- 7 Oteoko errota
- 8 Pierolako komentuan haitzigoketa
- 9 Trenttoa
- 10 Fausto Deunaren gorpu ustelezina

# 1

## Antoñana, Erdi Aroko iraganbideak

Tikia bada ere ikusgarria da, muru batean eraikia dago, mendixka baten gainean, Arabako Mendialdean lekurik ederrenetako batean, hain zuzen.

Herri misteriotsua, bere iraganbideekin eta zoko-mokoekin, hiru kale nagusi baino ez duen arren.

Hiribildura sartzeko, Erdi Aroko atetzar bat zeharkatu behar da, eta sartutakoan antzinako kartzela duzu, aur-aurrean, XVII. mendeko eraikin batean.







2

## Ibernaloko baseliza eta terraza bikaina

Eskualdeko jendeak maiteen duen lekua. Esaterako, hango anaidia seihun lagunek osatzen dute, Kanpezu guztian mila eta gehititoago diren arren.

Baseliza erromanikoa zen baina, dagoeneko, deusik ez dago, zeren, Independentzia Guduan frantses gudarosteak erre baitzuen. Eraikina 1930ean berriztatu izan zen eta haren interpretazio bat besterik ez da ikusgai.



Birjina, berriztaturiko tailu bat da, oso polita, euskal Andere Marien antzekoa. Ibernalon aterpetxea dago, eta haran osoa ikusi eta urkusi ahal izateko leku irona, jateko toki ezin hobea; eguneko menua salneurri onean, eta, albistea barreiatu denez gero, mahairik hutsik aurkitzea zaila.





3

## Ehiza

Ehiza eta mendia kanpezuarrek odolean daramatzate. Pozo Bajero deritzotena basurdea harrapatzeko ezin egokiago; usoa ere, betidanik, Mendialde honetan guztian irago izan da, joanean bezala etorrian, eta La Dormida izeneko egara bereziki ona uso-pasan.

Kanpezuko ehiztarien etxeetan izozkailuak mukurru, bete-beteak, basurdekiz batez ere.





*Arrea! Guía  
Michelin-en izar  
batekin dago*

4

## Arrea! Jatetxea



Edorta Lamo handiak bere sukaldaritzaz oso herrikoia dela dio, eta bertako nortasunari atxikia dela, bertako kultura-ohiturei: sasi-ehiza, mendia, lur-raren gurpena. Arrea-ko jatokia zurez apain-estalia dago –nola ez, Kanpezun!– eta ehizikia, guztiz ere, jatorrikoa da: Eperra eta hanka mendiko eskabete-xean, usokia gaztaina eta kontsomea-

rekin, orkazkia moxorrotua... Basurdekia, zenbat nahi den ere: bihotza edo iztezaina, hanburgesak, zistorra, saiheski hezurgetua eta ketua. Chef-ak kanpezuar sukaldaritzaz edoski du, izan ere, herriko plazan zegoen tabernetako bat bere senitarteena zen.





5

## Hirigune zaharra

Kanpezuko Santikurutzeren leheneko handitasuna haren eliza nagusi harrigarria ikusirik uler dezakegu, edo harresiaren zati batzuei begiraturik, kale batzuen izenak entzunik edota etxandi batzuk apaintzen dituzten armarriak begiztaturik.

Kanpezun bere antzinako garrantziaz zantzu askorik ez da geratzen, egia; haran hau Gaztelerrri eta Nafarroaren mugan zegoe-lako, batzuetan batean besteetan bestean, iragobide izan zen. Behialako gazteluaren, muru baten gainean eta herria sortzekoa, aztarrenarik ez.

Harresia hiribilduaren inguru osoan luzatzen zen arren, zati bat baino ez dago ikusteko, enparantza ondoan, beste guztia sunsittua edo ostendua dago, beste etxe batzuen hormetan sartua, nolabait. Jasokundeko Andere Mariaren eliza ez da ahortzi behar, ez ikusi bage irago; bere atari gotikoarekin eta Erdi Aroko zaldun baten hilobiarekin, zakurra eta guzti.





6

## Ignaziotar bidea

5. Bide-zatia : Alda – Genebilla  
Ignaziotar bidea, oraindik ez oso ezaguna,  
baratz-baratz eta isilean ibiltekoa da.

Bide-zati hau bakarti eta berezietako bat da. 18,5 km. Arana haranetik eta Done Bikenditik iragoz, Kanpezura iristeko bi aukera: Oteotik eta Antoñana zahar-lilura-garritik, edo Urbisutik. Hemen beste hiribil-  
du bat, XVI. mendeko etxeekin, leiho gotiko,  
aintzinalde eder, armarriekin... antzinate  
aintzatsu, loriatsu baten ezagugarriak.  
Kanpezun herri-aterpetxe txukun bat dago.



7

## Oteoko errota

Oteoko errotaraino beribilez hel daitekeen arren, ibai ondoko uhalde-bidetik oinez joaitea merezi du.

3 kilometro, doi-doi, leku eder honetatik Antoñanara. Ur-jauzia, Sabando ibaiko

turrusta deritzona, Araba osoan argazkian jasotako lekuetan lehenetako bat. Ur guti daroanean ere, argazkirako on.

Jauziaren ondoan, egun, aurrietan dagoen errotako harriak ikusten dira, antzinan bere egitekoa beteko zutenak.

Artadi, harizti, pagadi eta agin urtetsu bakan batzuk lekuaren osagarri, boilurak hazteko eta biltzeko aurkintza ona, boilurdi, beraz. Harainoko bidea, Sabandora doan errepi-detik, oinez edo txirrinduaz neke bagerik, aisa egin daiteke.



*Photo-Araba*

8

## Pierolako komentuan haitzigoketa

Ia osorik lur jota, inguruan kare harrizko harkaitzak, haitzigoketa egiteko leku bikaina.

Hirurogei haizpide dagoz irekirik, maila askotako, batzuk euskarri handiko eta itsaskorrek dira, Komentuaren mendebaldean, eta beste batzuk, zutabeetan eta okerdurekin Komentuaren ekialdean





9

## Trenttoa

1927an irasi zuten trena –trenttoa, eskualdean esaten zaion eran– ia mende erdiz ibili zen, Lizarra, Gasteiz eta Bergara lotzen zituela.

Vasco-navarro deritzon trenbidea, egun, bide berde oso atsegingarri bat da, Arabako Lautadatik eta Mendialdetik iragaiten dena, Kanpezun zehar Lizarrerrira doana.

Bide Berde honetako interpretazio-gunea Antoñanan dago.





10

## Fausto Deunaren gorpu ustelezina

Jaun Done Fausto txundigarria da. Haren gorpu ustelezina Bujanda herrixka bukolikoko elizan dago, Antoñanaren aitzinean.

Emankortasun eta uzta onen abokatu, maiatzean erreguteak hasten dira, eta gorderik datzan arkako baldia edo estalkia jasoz irekitzen da.

Giltzak Tere Aldak dadutza, eta behar denean erabiltzen ditu, haren amaginarreba hil zenaz gero ardura hori beretzat hartu baitzuen.



# Kanpezu zenbakietan

## Herriak

Antoñana · Bujanda ·  
Urbisu · Oteo ·  
Santikurutze Kanpezu


## Beste datu batzuk

1.080 bizilagun - 2024  
1.070 bizilagun (1860)  
2.315 zoro-lurrak  
501 erletxe  
9 taberna-jatetxe  
6 aloka-toki

## Kanpezu

- ◀ ● ● 37,5 Km ● ▶ Gasteizera
- ◀ ● ● 101 Km ● ▶ Bilbora
- ◀ ● ● 115 Km ● ▶ Donostiara
- ◀ ● ● 73 Km ● ▶ Iruñera

luze zabalera  
**85**  
km<sup>2</sup>



# Arabako Herriak

## Amamengandik bilobengana

### Ezinbestekoak, isilpekoak, historia eta ohiturak, ibilbideak eta gastronomia

Gure herrien lehen-geroa protagonisten bitartez, bertan bizi eta lan egindakoek euren oroitzapenak utzi dizkigute, eta lehen haretatik gerorantz goaz. Amamek ohiturarekin ekanduak biziarazi dituzte, baserri zein landerri, gure Araba honetan.

Arabar askok bere herriaren historiari bere istorioa erantsi dio. Oroitzapenen zaintzaile, jakinguraz beteak eta eskuzabalak, isilak maiz, lurralde eder honen nondik-norako guztien berri eman digute.

Askotariko Araba, tokian-tokian berezia eta, honela ere, jendez eta bizierez batua.

Laguntzaileak:



Ayuntamiento de Campezo  
Kanpezuko Udala



Gehiago jakitearren gure web-gunean



[arabakoherriak.com](http://arabakoherriak.com)